




EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



## MINORITY SAFEPAK HERRI-EKIMENEN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN FAVOR DE LA INICIATIVA CIUDADANA MINORITY SAFEPAK

Europar Herritarren Ekimena zuzeneko demokraziarako tresna bat da, Europar Batasunak 2012an sortu zuena. Baldin eta gutxienez Europar Batasuneko zazpi Estatutako milioi bat herritarrek baino gehiagok sostengatzen badute herritar talde batek proposatutako ekimen bat, orduan Europako Batzordeak bideratu egin behar du proposamen hori.


La Iniciativa Ciudadana Europea es un instrumento de democracia directa presentado por la Unión Europea en 2012. De tal modo que si más de un millón de ciudadanos europeos de al menos siete Estados miembros apoyan una iniciativa ciudadana, la Comisión Europea tiene la obligación de examinar esa propuesta.

Minority SafePack herri-ekimena gutxiengo nazionalak babestera zuzendutako lege-proposamen multzo bat da, Europa Batasunaren lege-xedapen multzo bat, gutxiengoen eskubideak eta hizkuntza-eskubideak sustatzen eta haien kulturak babestea ahalbidetzen duena. Labur esanda, gutxiengoentzako babesa eta haiei zuzendutako legedia.

Minority SafePack es un conjunto de proyectos de ley a favor de la seguridad de las minorías nacionales, una serie de desarrollos normativos de la Unión Europea que posibilitan la promoción de los derechos de las minorías, derechos lingüísticos y la protección de sus culturas. Siendo su objetivo la seguridad y desarrollos normativos para las minorías.

Europako Parlamentuak Europar Batzordearentzako mandatua onartu zuen, europar gutxiengoen hizkuntzak eta kulturak babesteko "Alfonsi txostenaren" aldeko 600 boto baino gehiagoz; honek, berretsi egin zuen europar lege lotesleen beharra, Funtsezko Eskubideen Europar Gutunean aitortutako eskubideak eta balioak egikaritzeko. Minority SafePack herri-ekimen honek Europar Batzordea animatzen du mandatu hori betetzera.

Esta iniciativa ciudadana anima a la Comisión Europea a cumplir con el mandato que le efectuó el Parlamento Europeo cuando aprobó por más de seiscientos votos a favor el llamado "informe Alfonsi" para proteger las lenguas y culturas de las minorías europeas. En aquel informe y por amplio consenso, se insistió en la necesidad de una legislación europea vinculante que convierta esa protección en hechos valores y derechos reconocidos en la carta Europea de Derechos Fundamentales. Se trata ahora de insistir en esta idea utilizando la vía de la iniciativa ciudadana europea.




Europar Batasunaren leloa da "In varietate concordia – Batasuna aniztasunean". Minority SafePack Ekimenaren helburua da Europar Batasuna bere leloaren arabera bizitzera bultzatzea, eta, beraz, nazio- eta hizkuntza-gutxiengoetako herritarren babesa hobetzea eta Batasuneko kultura- eta hizkuntza-aniztasuna indartzea, Europar Batasunari ematen dion aberastasuna ukaezina izanik. Iraganean, Europar Batasunak sarritan baztertu izan ditu horrelako eskariak, eta gutxiengoen arazoek konponbidea estatu bakoitzaren eskuetan utzi du, edo beste nazioarteko erakunde batzuen eskuetan.


Eusko Legebiltzarrak bat egiten du Minority SafePack herritar-ekimenarekin eta herritarrak bere sinadurarekin hura babestera animatu nahi ditu.

Herri-ekimen honen haritik, Eusko Legebiltzarrak Europar Batasunari bere arduraren hartu dezala eskatu nahi dio eta kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren benetako eragile bihurtu dadila Europa osoan.

Halaber, Eusko Legebiltzarrak Europar Batasuneko estatuek ere errespetatu ditzatela gutxiengoen babesari buruzko Kopenhageko Irizpideak eskatu nahi du.

Gasteizen, 2018ko otsailaren 22an.

  
EA-NV


  
SV-ES


El lema de la Unión Europea es "In varietate concordia – Unida en la diversidad". El propósito de la iniciativa Minority SafePack es animar a la Unión Europea a cumplir con su lema y mejorar la protección a las personas que pertenece a minorías nacionales y lingüísticas y fortalecer la diversidad cultural y lingüística en la Unión. En el pasado, la Unión Europea ha ignorado estas solicitudes en demasiadas ocasiones y ha dejado que los asuntos de las minorías se contemplen a nivel estatal o por otras organizaciones internacionales.


El Parlamento Vasco se suma a la iniciativa Minority SafePack y anima a la ciudadanía a respaldarla con su firma.

En la misma línea de la iniciativa ciudadana, el Parlamento Vasco solicita a la Unión Europea que se responsabilice y que sea un promotor genuino de la diversidad cultural y lingüística en toda Europa.

Y del mismo modo, el Parlamento Vasco solicita que los Estados miembros de la Unión Europea observen los criterios de Copenhague que protegen los derechos de las minorías.

  
EP

  
GRI/ETP

  
EHB